5. IKASGAIA.- GAUZAK ETA ONDAREA.

5.1.- Kontzeptua.

Ondasunak balio ekonomikoa duten eta eskuragarriak diren edozein objetu material edo ezmaterial dira.

1. **Eskuragarria** izateak, Zuzenbidearentzat zera esan nahi du: petsonak gauza hori bere borondatearen menpe eduki ahal izatea, hau da, bereganatu ahal izatea.
2. **Balio ekonomikoa** izatea, interes ekonomikoa izatea da.

MOTAK

Hurrengo sailkapena egin daiteke:

1.- Ondasun materialak eta ezmaterialak .

Ondasun materialak, zentzuen bitartez antzeman daitezkenak dira eta, ez materialak, zentzuen bitartez antzeman ezin daitezkenak.

2.- Ondasun Publikoak eta Pribatuak.

Ondasun publikoak: Estatuarenak, Autonomia Erkidegoarenak, Probintziarenak edo Udalerriarenak diren ondasunak dira. Ondasun hauen artean hurrengoak daude:

- Kolektibitateak erabiltzeko ondasunak. Interes orokorra asetzeko direnez eta hiritar guztienak, ezin dira ez saldu ezta enbargatu.
- Zerbitzu publiko bat emateko ondasunak dira.

Ondasun pribatuak: ondasun izateko ezaugarriak betetzen dituzten gainerako ondasunak izango dira.

3.- Ondasun higiezinak eta higigarriak

Zentzuen bitartez antzeman daitezken gauza guztiak higiezin edo higigarritzat joko dira.

Ondasun higigarriak alde batetik bestera mugi daitezkenak izango dira, eta higiezinak, aldiz, kokaleku finko eta mugiezina dutenak. Ondasun higigarriak, bakarrik, inskribatzen dira Jabego Erregistroan.

4.- Ondasun Zatigarriak eta Zatiezinak

Zatiezinak dira, zatituz gero, balioa galduko luketen gauzak. Zatigarriak, aldiz, zatituz gero, balioa mantentzen dutenak dira.

5.- Ondasun ordezkagarriak eta ordezkaezinak

Ondasun ordezkagarriak espezie, kalitate eta kantitate berdineko gauzez ordezka daitezke. Ondasun ordezkaezinek, balio berezi bat dute, eta bere ezaugarriek ordezkaezin bihurtzen dituzte.

5.2.- Ondarea. Kontzeptua eta ezaugarriak

Kontzeptua

Ondarea, pertsona baten ondasun, eskubide eta obligazio guztiak dira. Ondasun horiek dirutan neurtzeko modukoak izan behar dira.

Pertsona baten ondareak bere zorren berme orokor bezala balio du. Kode Zibileko 1911. art.k dioenez, "obligazioen betetzeaz, zordunak bere ondasun guztiekin erantzuten du, momentuan dituenekin eta etorkizunekoekin".

Pertsona fisiko eta juridiko baten ondare pertsonalaz hitzegiterakoan, pertsona honen helburu eta zerbitzuetara jarria dagoen ondareaz ari gara. Orokorrean pertsona batek ondare bakarra dauka eta berau, ondare pertsonala izango da.

5.3.- Ondasunen gaineko eskubide errealak

Eskubideak zera dira: eskubide horien titularrek gauza edo ahalmen batekiko egin dezaketena.

Eskubideen artean, eskubide errealak edo gauzen gaineko eskubideak daude. Eskubide errealak edo gauzekiko eskubideak, gauzekiko harremana edo lotura adierazten dute, gauzekiko burutu daitezken ahalmenak. Eskubide hauen titularrak edozein pertsonen aurrean erabil ditzake bere ahalmenak; honi "erga omnes" deitzen zaio.

Ondasunen gaineko ahalmena osoa edo mugatua izan daiteke. Eskubide erreala osoa izango da pertsona batek gauza baten gain eskubide guztiak dituenean. Mugatua izango da titularrak gauzarengan ahalmen batzu bakarrik dituenean. Eskubide errealak, Jabego Erregistroan inskribatuz babesten dira.

5.3.1.- Eskubide errealen eskuratzea

Eskubideak eskuratzeko bi modu bereizten dira, jatorrizkoa eta eratorria:

1) Jatorrizko modua. Jatorrizko moduan eskubideak lortzeari Okupazio deitzen zaio. Inorena ez dena eskuratzean datza. Okupazioz jabego eskubide erreala eskuratzen da soilik eta ez besterik.
2) Modu eratorria. Aurretik beste pertsona batena zena eskuratzea da. Eskuratzen dugun eskubideak kargak baldin bazituen, guk ere kargekin jasoko dugu. Modu eratorrian eskubideak eskuratzeko sistemak hurrengoak dira: Legea, Dohaintza, Oinordetza eta Kontratuak. Jabegoa eta gainontzeko eskubideak eskuratzeko sistemak dira hauek.

Orokorrean, gauzak eskuratzeko modua eratorria izango da.

Espainiar legedian, gauzen gaineko eskubideak edo eskubide errealak modu eratorrian eskuratzeko bi baldintza dira beharrezkoak: 1) Titulua eta 2) Traditio.

1) Titulua: titulua beharrezkoa da eskubide erreala pertsona batetik bestera transmititzeko. Ad. pertsona bat jabea dela ziurtatzen duen kontratuaren dokumentua.

2) Traditio edo Modua: ondasunen gaineko jabegoa edo beste eskubide errealak traditioaren bitartez transmititzen dira, hau da, entregatuz. Entregatze hori zenbait modutan egin daiteke:

a) Materiala (fisikoa): transmitenteak eskuratu behar duenari kontratuaren momentuan gauza eskuz (efektiboki) ematen zaionean.

b) Instrumentala: salmenta eskritura publiko bidez notario aurrean egiten denean, traditioa edo entrega egon dela kontsideratzen du legeak.

5.3.2.- Eskubide errealak

5.3.2.1.- Edukitza

Gauza baten edukitzaileak, orokorrean, gauza horrekiko erabilera eskubidea dauka. Horrela, erabilera ahalmena daukanak, edukitza izango du. Orohar, jabegoa daukanak edukitza izango du, baina jabegoa izan gabe pertsona batek gauza baten erabilera izan dezake eta, beraz, edukitza.

Zuzenbideak edukitzari garrantzi handia ematen dio eta edozein edukitza mota babesten du, baita ere eskubiderik gabe izan liteken edukitza. Gauza baten edukitza duen pertsonari gauza kentzeko epailearen agindua beharko da kasu guztietan.

Edukitza babestuko ez balitz, jabegoa duenak edukitzailea bere egoeratik botatzeko edonolako moduak erabiliko lituzke, baita indarkeria ere, eta legeak hau ekidin nahi du. Zuzenbideak bake soziala mantendu nahi du. Beraz, gauza bat norberarentzat nahi duenak hau lortzeko beti legezko bide bat erabili beharko du.

Edukitzaileak edukitzen jarraituko du norbaitek edukitzaile hori benetako jabea ez dela frogatzen duen arte. Baina inork ezin dio beste bati gauza baten gaineko edukitza kendu gauzaren gaineko eskubide falta alegatuz. Edukitza babeseteko edukitzaileak duen instrumenturik nabarmenena, “Interdikto” izeneko epaiketa berezi bat izango da. Norbaitek, bere aldeko sententzia bat lortzeko, bere edukitza bakarrik frogatu beharko du eta ez da beharrezkoa izango jabegoa frogatzea, eztabaidan dagoena ez baita edukitzailea jabea den ala ez. Edukitzaileak urtebeteko epea du edukitza galdu zuenetik, akzio hau erabiltzeko. Epaileak epaiketa honetan ez du edukitzatik deberdina den besterik baloratuko eta beste edozein arazo epaiketa arrunt batean ikusi beharko da; edukitza zuenari, nahiz eta edukitza eskubide gabea izan, gauzaren edukitza itzuliko zaio.

5.3.2.2.- Jabego eskubide erreala

Jabegoaren definizioa eta mugak, Kode Zibilak eta 1978 ko Konstituzioak jasotzen dituzte. Kode Zibilak jabegoaren definizioa 348, artikuluan ematen du: "Gauza

bat erabili eta xedatzeko ahalmena, legeak jarritakoak baino beste mugarik gabe". Jabegoa, gauzaren gaineko eskubide erreal absolutua da. Jabeak bere ondasunarekin nahi duena egin dezake, mugarik gabe erabiliz eta aprobetxatuz.

Jabegoaren ahalmen tipikoak hurrengoak dira:

1.- Erabiltzeko ahalmena: printzipioz, gauzaren jabea izango da gauza erabiltzeko ahalmena izango duena, edo gauzari zein erabilpen emango zaion jarriko duena.

2.- Xedatzeko ahalmena: gauzaren jabe izateari uzteko ahalmena, beste bati besterenduz.

3.- Gauza edukitzeko ahalmena eta, kendua izan bazaio, erreklamatzeko eskubidea.

Erabiltzeko ahalmenak zenbait muga ditu, ugariak dira eta bi motakoak:

1) Besteen interes pribatuak babesteko jarritako mugak: Kode Zibilak jartzen duen arau orokorra da, jabeak ezin diela auzokoei enbarazurik egin, hau da, norberaren jabetza eskubidea besteen eskubideak errespetatuz egikaritu behar dela.

2) Guztion interesa babesteko jarritako mugak: hauek administrazio zuzenbideko arauak dira eta oso ugariak dira.

- Xedapen ahalmenaren mugak: adibide nagusia hiri-alokairuen zuzenbidean azaltzen da, honen arabera, jabeak alokatu duen etxebizitzaren erabilpena, beharragati, berreskuratzen badu, alokairu kontratua bertan bera utziz, jabeak hiru hilabetetan ez badu etxea okupatzen berriz alokatu beharko dio maizter berdinari. Beste adibide bat atzera eskuratze eskubidearena litzateke.

5.3.2.3.- Eskubide erreal mugatuak

Eskubide erreala mugatua izango da eskubide horren titularrak gauzarengan ahalmen batzu bakarrik dituenean.Beraz, gauza batekiko pertsona batek baino gehiagok eskubideak dauzkatela esan nahi du. Eskubide erreal mugatuak, izaeraren arabera, hiru taldetan sailkatuko ditugu:

- Erabilera eskubideak

- Berme eskubideak

- Lehentasunez eskuratzeko eskubideak

1) Erabilera eskubideak

a) USUFRUKTUA

Usufruktuaren bitartez, pertsona batek beste pertsona batena den gauza batetaz gozatu dezake. Gauzaren jabegoa beste bati dagokio (jabe soila) baina usufruktua duenak gauza hori erabiltzeko eskubidea du. Bi berezitasun nagusi ditu:

1.- Denbora mugatu baterako izatea: usufruktuaz baliatzen dena pertsona fisikoa bada, usufruktuaren gehienezko epea pertsona horren bizitza izango da, aldiz, pertsona juridikoa bada gehienezko epea 30 urtekoa izango da.

2.- Gauza horren itxura eta izaera gordetzeko obligazioa: usufruktua epe mugatu baterako denez, usufruktua duenak, gauza jabeari eskuratu zuen bezala itzuli behar dio. Horregatik, ezingo du gauza hori saldu, ez aldatu, ezta desegin.

Usufruktua sortzeko moduak:

- Legea: Kasu batzutan, legearen aginduz edo bidez, sortzen da usufruktu eskubidea.
- Borondatea: gauzaren jabeak, usufruktu eskubidea norbaiten alde sortzea erabakitzen du.

b) ZORTASUNA

Ondasun higiezinetan bakarrik eratzen den eskubidea da. Zortasunaren definizioa: Ondasun higiezin baten jabeak (finka nagusia), beste higiezin baten gain (menpeko finka) duen erabilera ahalmen mugatua da. Menpenko finka eskuratzen duenak, finka hori zortasunarekin eskuratzen du, zortasuna ez baita finkaren jabearengan izaten finkarengan baizik. Zortasunak, bi finken arteko jabeen akordioz sor daitezke edo Legearen aginduz.

c) AZALERA ESKUBIDEA

Azalera eskubidea, pertsona batek, berea ez den lursail batean eraikitzeko edo landatzeko duen eskubidea da; eraikitakoa edo landatutakoa beretzat eskuratuko duelarik baina denbora bateralo. Epe hori igaro ondoren, eraikitakoa edo landatutakoa lursailaren jabearentzat izango da. Eraikitakoa eraikitzailearentzat gehienez 99 urterako izango da. Normalean, eskubide hau kostubidezko tituluz (zerbaiten truke) sortzen da. Dokumentu publikoa eta jabego erregistroan inskripzioa derrigorrezkoak dira eskubide hau sortzeko.

d) BUELO ETA LURPE ESKUBIDEA

Eskubide hauen titularrek aurretik beste pertsona baten eraikuntza batean solairu gehiago eraikitzeko (derecho real de vuelo) edo beste baten eraikuntzaren azpian eraikitzeko eskubidea dira (derecho de subsuelo). Beraz, eskubidea lurraren azpian edo gainean eraikitzeko izan daiteke.

2) Berme eskubideak

Kreditu baten ordainketa ziurtatzeko sortzen dira. Hartzekodunaren aldeko obligazio bat betetzea bermatzen dute. Bermatutako zorra zordunak ez badu ordaintzen, bermean eman den ondasuna hartzekodunak subastan saldu dezake, hartzekoduna geldituko delarik zorraren zenbatekoa estaltzen duen kantitatearekin, soberan gelditzen dena zordunari bueltatzen zaiolarik. Normalean, bermean emandako ondasunek, bermatutako zorrak baino balio handiagoa du. Subastan lortzen den diruarekin zorra likidatzen da.

a) HIPOTEKA

Ondasun higiezinengan ezartzen da eta kreditu bat bueltatua izango dela bermatzen du. Kreditu hori ordaintzen ez bada, hipoteka eskubidearen jabeak, hipotekatutako ondasuna subastan saldu eta lortutako prezioarekin gelditzeko aukera izango du.

Hipotekak ez du hipotekatua izan den ondasunaren edukitza aldaketarik suposatzen, hau da, hipotekatutako ondasun higiezina ez da hipotekaren titularraren

esku gelditzen. Zordunak, hipotekatua izan den ondasuna erabiltzen jarraitzeko eskubidea izango du.

Hipoteka, beti, sortu dadin, dokumentu publikoan egin beharko da eta gainera Jabego Erregistroan inskribatu beharko da.

b) BAHITURA

Ondasun higigarriengan ezartzen da. Kreditu eskubide baten, hau da, zor baten betetzea bermatzen du. Kreditu hori ordaintzen ez bada, bahitura eskubidearen jabeak, bahituran emandako gauza hori saldu eta prezioa berea egiteko aukera dauka.

Bahituraren ezaugarri nagusia edukitza aldaketa beharrezkoa dela da. Obligazio baten berme moduan ondasun higigarri batekiko bahitura eskubide bat sortzen denean, ondasun higigarria hartzekodunaren esku utziko da, eta ez zaio zordunari bueltatuko bermatutako obligazioa erabat betetzen ez duen bitartean. Hala ere, hartzekodunak ezin du bere esku uzten zaion gauza hori erabili, jabearen baimenik gabe.

3) Lehentasunez eskuratzeko eskubidea

Arau orokor bezala, gauza baten jabeak, gauza hori nahi duenean eta nahi duen pertsonari sal diezaioke, baina kasu mugatu batzutan norbaitek gauza hori beste inork baino lehenago eskuratzeko eskubidea dauka. Horixe da, hain zuzen, lehentasunez eskuratzeko eskubidea.

Motak:

1. **Eroslehentasun eskubidea**: eskubide honen titularrak beste edozein erosle dagoela jakitean, eskeintza berdintzen badu, berak erosi ahal izango du inork baino lehenago saltzen den gauza.
2. **Atzera eskuratze eskubidea** : eskubide hau duenak, gauza hirugarren bati saldu zaiola jakiten duen momentutik, orohar hilabeteko epean, eskeintza berdinduz gauza hori berak eskuratzeko aukera izango du.

Lehentasunez eskuratzeko eskubidea dago, legeak adierazten duen kasuetan eta kontratu batean hitzartuz gero.

5.4.- Jabego Erregistroa. Eskubideen publizitatea

Kode Zibileko 605. artikuluak dioenez, Jabego Erregistroaren funtzioa ondasun higiezinen gaineko jabegoa eta beste eskubideak inskribatzea da, hirugarrenek eskubide horiek benetan existitzen direla konproba dezaten.

Ondasun higiezinen informazioa modu ofizialean argitara emateko bulego edo erakunde publikoa da Erregistroa. Bertan, edonork jakin dezake ondasun bakoitzaren egoera zein den, nor den ondasun higiezinaren jabea eta eskubide erreal batekin kargatuta dagoen...

Erregistroko bulego bakoitzean Zuzenbidean teknikari bat egongo da: Erregistratzailea. Erregistratzaileak inskribatzeko aurkezten diren tituluak inskriba daitezken edo ez aztertzen du; kalifikazioa deitzen zaio horri.

Inskripzioa. Beharra eta eragina.

Arau orokor bezala, Erregistroan inskribatzeak izaera deklaratzailea du eta ez da beharrezkoa. Honek zera esan nahi du: ondasunaren gaineko jabegoaren salerosketa eta usufruktua inskribatzea ez da derrigorrezkoa. Egindako negozioak balioa du Jabego Erregistroan inskribatu edo ez inskribatu. Erregistroak negozioari publizitatea emateko balio du soilik.

Salbuespen bezala, eta kasu konkretu batzutan, Erregistroan inskribatzeak izaera eratzailea du; hau da, inskripziorik ez badago egindako negozioak ez du baliorik. Hau hipoteka eskubidearen kasuan eta azalera eskubidearen kasuan gertatzen da. Aipatutako eskubide hauek ez dira sortutzat joko, Erregistroan inskribatu arte.

Inskripzioa kasu gehienetan deklaratzailea bada, inskribatzea zergatik izan daiteken interesgarria galde gaitezke. Eskubideei publizitatea emate hutsa ere interesgarri suerta daitekeela ahaztu gabe, erantzuna inskripzioaren alde dauden abantailetan aurki dezakegu:

1. Jabea izatearen ustea. Erregistroan gauza baten jabe gisa agertzen denak beste edozeinen aurrean benetako jabea denaren ustea edo presuntzioa izango du. Uste hau, "iuris tantum" erakoa da, hau da, epaiketan kontrako froga emanez gero desegin daiteke presuntzio hau, baina desegiten ez den bitartean Erregistroaren arabera eskubide honen jabe denak izango du jabetza.
2. Erregistroaren deklarazio publiko efektua. Norbaitek eskubide bat uste onez eta kostu-bidezko tituluz (zerbaiten truke) Erregistroaren arabera jabe den beste norbaiten eskutik jasotzen badu, ezin izango zaio jasotakoa kendu, eta beraz eskubide honen jabe izaten jarraituko du, nahiz eta gero eskuratu duen gauzaren gaineko eskubidea baliogabe dela agertu.

Adibidez, etxe bat erosten zaio Erregistroan jabe bezala agertzen den norbaiti. Erosleak ez daki saldu zuenak, erosleari baino lehenago, etxe bera beste norbaiti saldu ziola, eta honek ez zuela bere jabegoa inskribatu. Erosleak bere jabegoa inskribatzen duen momentutik aurrera ordea, ezingo diote etxearen jabegoa kendu nahiz eta saldu zuena jabe ez zela demostratu. Benetako jabe zenak, saltzaileari kalteak eskatu ahal izango dizkio baina etxea ezingo du eskuratu. Kasu honetan, Erregistroaren araberako jabearengandik jasotzen duenaren aldeko jabetza uste izaten da, baina uste hau "Iuris et iure" erakoa da, hau da, ez du kontrako frogarik onartzen edo, argiago esanda, kontrakoa frogatzen bada ere horrek ez du jabego hori aldatuko.

5.5.- Obligazio solidarioak eta mankomunatuak

Obligazio mankomunatuak: obligaziozko erlazio juridiko batean zordun batek baino gehiagok parte hartzen dutenean, zordun bakoitzak obligazio osotik berari dagokion zatia ordaintzeko obligazioa duenean mankomuntasuna existitzen da.

Obligazioa solidarioak: obligaziozko erlazio juridiko batean zordun bat baino gehiagok parte hartzen dutenean, zordun bakoitzak obligazio osoa ordaintzeko betebeharra duenean solidaritatea existitzen da.

6. Ikasgaia.- OBLIGAZIOAK ETA KONTRATUAK.

6.1.- Negozio juridikoa. Kontzeptua.

Pertsona baten borondatezko portaera bat da, berak jarritako arauek erregulatzen dute, negozioan parte hartzen duten alderdiak lotuta gelditzen direlarik. Adibidez, eskubide errealen transmisioa, salerosleta, donazioa, sozietate kontratua, errentamentuak (arrendamiento), lan kontratuak, ezkontz kapitulazioak, testamentuak…

Negozioa egiterakoan, borondatearen autonomia printzipioak jokatzen du. Honen arabera, erlazio edo negozioaren alderdiek, komenigarritzat jotzen dituzten paktu, klausula eta baldintzak jar ditzakete, beti ere, legearen, moralaren eta ordena publikoaren kontrakoak ez badira behintzat (KZ 1255. art.a).

6.2.- Kontratua: kontzeptua eta elementuak.

Kontzeptua

Kode Zibilaren 1254. art.ak dioenez, kontratuaren ondorioz, pertsona batek bere burua gauza bat ematera, egitera edo ez egitera behartzen du. Kontratuak alderdientzat obligazioen iturri dira. Kontratuetatik sorturiko obligazioek alderdi kontratatzaileen artean lege-indarra dute. Borondatearen autonomia dela eta, petsonek libreki erabakiko dute kontratatzea edo ez, kontratu mota aukeratzea eta kontratuei buruz legeak jarritako arauak aldatzeko posibilitatea. Beraz, kontratatzaileek nahi dituzten paktu, klausula eta baldintzak ezar ditzakete, hauek, beti ere, legearen, moralaren eta ordena publikoaren kontrakoak ez badira.

Kontratuaren elementuak:

1.- Alderdi kontratatzaileen adostasuna.

Alderdien gaitasuna ezinbestekoa da kontratua baliozkoa izateko. Kontratatzeko gaitasuna eta jarduteko gaitasunak, orokorrean, bat egiten dute. Ez dute gaitasunik izango emantzipatu gabeko adintxikikoek eta beren burua gobernatzeko gaitasunik ez dutenak, hau da, ezgaituek (KZ 1262 art.a). Beraz gaitasuna dute eta kontratu baten alderdi izan daitezke:

a) Adin nagusikoak.
b) Emantzipatutako adin gabekoak.
c) Ordezkari baten bidez (gurasoak, tutorea...) jarduten duten emantzipatu gabeko adin gabekoak eta gaitasunik gabekoak, ondasunak transmititzeko eta kargatzeko (KZ 156 eta 166. art.ak).
d) Pertsona juridikoak, beraien ordezkapen organuen bidez jarduten dutenean.

Alderdi kontratatzaileek gaitasuna izateaz gain, beren kontratatzeko borondatea biziorik gabekoa izan beharko da. Borondate hori biziaturik badago, deuseza izango da:

1) Erroreagatik (1266. art.a). Deklaratutako borondatean dago errorea.
2) Bortxakeriagatik (1267.1a). Adostasuna lortzeko, indar gaindiezina erabiltzen denean, bortxakeria dago.
3) Intimidazioagatik (1267.2 a). Intimidazioa dago, alderdi kontratatzaile bati, kalte larria egingo zaiola mehatxatuz, kontratatzaile horrengan beldurra sortzen denean.
4) Doluagatik (1269. eta 1270. art.ak). Alderdi kontratatzaile batek, fede txarreko jarduera engainagarri baten bidez, besteak bere adostasuna eman dezan lortzen duenean, adostasunean dolua dago.

2.- Kontratuaren objetua.

Modu orokor batean esanda, kontratuen objetua beraietan zehazten diren prestazioak dira. Askotan, kontratuaren objetua gauza bat da; liburu bat erosten dugunean, adibidez. Baina futbol partidua ikusteko sarrera erosten dugunean, kontratuaren objetua ez da gauza bat, zerbitzu baten prestazioa baizik. Kontratuaren objetuak, posible, zilegi eta mugatua edo mugagarri izango dira. Ezinezko gauza eta zerbitzuak ezin daitezke kontratuaren objetu izan. Etorkizuneko gauzak, ordea, kontratuaren objetu izan daitezke. Beraz, kontratuaren objetua, gizakiaren merkataritzatik kanpo ez dauden gauza guztiak, gerokoak barne, izan daitezke. Merkataritzatik kanpo hurrengo ondasunak daude: ondasun publikoak, bai erabilera publikokoak eta bai zerbitzu publiko batera zuzendutakoak, eskuragarriak ez diren gauzak –airea, argia...- eta legeak merkataritzan aritzeko debekatutakoak.

3.- Kausa

Kontratu bidez asumitutako obligazioak kausa bat izan beharko du. Alderdi kontratatzaile bakoitzarentzat beste alderdiak jasoko duen gauza edo zerbitzuaren prestazioa izango da kausa; adibidez, nik Matilderi bizikleta bat erosten diodanean, nik prezioa ordaintzearen obligazioaren kausa Matildek niri bizikleta entregatzeko daukan obligazioa da; benefizentziako kontratuetan, ongilearen eskuzabaltasuna...

Kontratuaren Forma

Gure Zuzenbidean kontratu formaren askatasun printzipioa finkaturik dago. Kode Zibileko 1278. artikuluak honela agintzen du: Kontratuek, edozein formatan eginda ere, behartu egiten dute, baldin eta beraien baitan baliagarriak izateko beharrezko baldintzak badaude.

Idatzizko kontratua bi modutan egin daiteke: dokumentu pribatuz edo dokumentu publikoz. Dokumentu pribatua alderdi kontratatzaileek egiten dute beraien kontratuzko akordioa idatziz jarriaz. Kontratu batzu forma librea dute eta beste batzu forma konkretu bat izan behar dute. Batzutan, legeak dokumentu publikoz egin behar direla agintzen du. Dokumentu publikoen artean, praktikan, garrantzitsuenak notarialak dira. Notarioak dira dokumentuei fede publikoa ematen dietenak. Notarioak dokumentu publikoan fede ematen du alderdi kontratatzaileen borondateaz eta dokumentuari froga indarra ematen dio. Notarioen dokumentu nagusiak eskritura publikoak dira.

6.3.- Kontratuaren eraginkortasuna.

Orokorrean, kontratuaren efikazia alderdi kontratatzaileei mugatzen da, hau da, kontratuaren alderdiak bakarrik lotzen ditu eta ez hirugarrenak. Kontratuaren alderdi esaterakoan, alderdia izan denaren jaraunslea ere izango da, heriotzagatiko oinordetza sortutakoan.

Kontratuaren eraginkortasunak bi ezaugarri ditu. Alde batetik, beharrezkotasuna; alderdi kontratatzaileak behartzen bait ditu, legea balitz bezala. Bestalde, ezeztaezintasuna; alderdi kontratatzaile batek bere aldetik kontratutik eratorritako obligazioak ezin bait ditu apurtu.

6.4.- Kontratuaren eraginkortasun falta.

Kontratuak ondorioak sortzen ez dituenean eraginkortasun falta dago. Kontratu baten eraginkortasun falta egongo da, hurrengo kasuetan: deuseztasuna eta deuseztagarritasuna.

Deuseztasuna. Eraginkortasun falta suposamendu larriena da. Kontratu bat deuseza izango da akats bat dela medio, ondorio juridikoak sortzeko gai ez denean. Deuseztasun kausak hurrengoak izan daitezke:

1) Legearen kontrako kontratua izateagatik.

2) Kontratuaren objetua, kausa edo adostasuna faltatzeagatik.

3) Legearen arabera kontratuak balioa izateko forma bat izan beharko balu, forma hori ez errespetatzeagatik.

Kontratu baten deuseztasuna interesa nahikoa azaltzen duen edonork eska dezake. Deuseztasun akzioa edozein momentutan tarteratu daiteke, ez dago eperik (ez da preskribatzen). Gainera, kontratua ezin da konfirmatu. Deuseztasuna deklaratzearen ondorioz, kontratuaren alderdi bakoitzak, bestearengandik jaso duena bueltatu beharko du.

Deuseztagarritasuna. Deuseztagarritasuna, deuseztasuna baino arinagoa da. Kontratuaren alderdietako batek, kontratuan egon den eraketa prozesuan izandako bizio edo akats bat dela eta, kontratua aurkatzeko ahalmena dauka. Kontratua existitzen da eta, printizipioz, alderdietako bat obligatzen du baina beste alderdia, errorearen, doluaren edo mehatxuen biktima izan dela sentitzen badu, kontratutik banandu edo apartatu egin daiteke. Arrazoiak hurrengoak izan daitezke:

1) Jarduteko gaitasun eza: gaitasunik gabekoek egindako kontratuak.
2) Borondatearen bizioa egotea: funtsezko akats batekin ospatutako kontratuak, dolua, intimidazioa eta beldur larria.
3) Ezkontide batek, negozio bat egiterakoan, beste ezkontidearen baimenik gabe egin izan balu, baimen hori beharrezkoa zenean.

Deuseztagarritasun akzioa erabiltzeko hurrengo pertsonak izango dira gai:

- Borondatearen bizioak izan badira, bizioa sufritu duena.

- Gaitasun falta badago, gaitasun gabekoak gaitasun osoa lortzen duenean.
- Ezkontide baten adostasuna falta bada, adostasuna eman ez duen ezkontidea.

Deuseztagarritasun akzioa erabiltzeko lau urte izango dira. Deuseztagarritasun akzioaren ondorioz kontratua deuseza deklaratzen denean, kontratuaren alderdietako bakoitzak eginak izan zaizkion prestazioak kontratuaren beste alderdiari bueltatu beharko dizkio.

Kontratua baliorik gabe uzten denean deuseza edo deuseztagarria zelako, kontratuak ez du efekturik sortzen. Gauzak kontratua egin aurretik zeuden egoerara bueltatuko dira. Kontratuaren alderdiak ez dira lotuta gelditzen eta ez dira obligazioak jaiotzen. Kontratuaren alderdiek, batak besteari, emandako gauzak bueltatu beharko dizkiote (KZ 1303tik 1306 art.ra).

Kontratuaren desegitea (rescisión). Kasu honetan, kontratua baliozkoa zen baina eraginkortasun falta kontratua ospatu ondoren sortzen da. Deuseztasun eta deuseztagarritasun kasuetan, kontratuak ez zuen baliorik hasieratik. Kontratuaren desegiteak eraginkortasun falta suposatzen du kontratu horrek alderdietako batentzat edo hirugarren batentzat bidezkoa ez den emaitza batera daramanean: adibidez, hartzekodunei iruzurra sortzen duenean. Kontratu bat eraginkortasun gabea kontsideratzen bada, horrela deklaratu zenetik hasiko dira efektuak.

6.5.- Kontratua iraungitzea.

Iraungitzearen arrazoiak, beste batzure artean, hurrengoak dira:

1- Kontratuarekin bilatutako helburu ekonomikoa lortu denean.

2.- Kontratuan aurrikusitako epea bete denean.

3.- Kontratuaren alderdietako batek bere obligazioa bete ez duenean (KZ 1124 art.a). Azken kasu honetan, kontratuaren alderdietako batek ez badu kontratua betetzen, kaltetuak obligazioa betetzea edo kontratua bukatzea galda dezake, bi kasuetan, kaltegaleren ordainketarekin edo, bestela, kontratua bukatzea eska dezake betetzea eskatu ondoren hau ezinezkoa bihurtu bazen.

Obligazioa ez betetzeak definitiboki prestazioa ez egitea esan nahi du, zordunak bete nahi ez duelako edo betetzea ezinezkoa delako. Ez da berdin tratatu behar obligazioa nahita betetzen ez duena eta nahigabe bete ez duena. Horregatik efektuak desberdinak

dira eta graduatu egiten dira. Gradu hauek hiru dira: ezusteko kasua, ezinbesteko kasua, kulpa eta dolua.

a) Ezusteko kasua eta ezinbesteko kasua. Obligazioa betetzea ezinezkoa bihurtzen duten eta zordunari leporagarriak ez diren gertakizunak dira. Kasu hauetan, zorduna kontratua betetzetik aske gelditzen da eta ez du kalte-galerengatiko erantzukizunik izango (KZ 1105. art.a).
b) Kulpa. Gure Zuzenbidean, kulpa beharrezko diligentzia eza edo arduragabekeria da. Zorduna kulpaduna izango da, kontratua bete ez duenean eta nahiz eta nahita ez izan, modu arduratsu batean ez betetzea ekiditeko ahal duena egin ez duenean. Ez da beharrezkoa zordunaren malizia, nahikoa da agindu duena ez betetzea ahaztu egin zaiolako, deskuidoagatik, ardura faltagatik...
c) Dolua. Zordunak egin duena nahita, modu konsziente batean eta borondatez egin duenean. Dolua egon dela hartzekodunak frogatu beharko du.

Ez betetzearen efektuak

Hartzedunak kontratua betetzea nahi badu eta zordunak betetzen ez badu, bide judizialean eska dezake epaileak kondenatu dezan. Nahitaezko betetzea posible ez denean hartzekodunari egindako kaltegalerak ordainduko beharko dizkio zordunak. Kode Zibileko 1101. art.ak dioenez, berandutzan daudenak edo dolu bidez edo arduragabekeriaz jokatzen dutenak sortutako kaltegaleretaz erantzun beharko dute.

6.6.- Kalteengatiko erantzukizuna.

Kode Zibileko 1902. art.k dioenez, pertsona batek beste bati kalte bat egiten dionean, kulpa edo arduragabekeria egonik, egindako kaltea konpondu beharko du. Honi kontratuz kanpoko erantzukizuna deitzen zaio.

Kontratuz kanpoko erantzukizuna ez zaio pertsona bati berak zuzenean egindako egintzengatik bakarrik galdatuko, bere erantzukizunpean dauden pertsonek egindakoaz ere erantzungo dute: guraso eta tutoreek, beren adingabeko seme-alabek eta gaitasunik gabekoek egindakoaz erantzungo dute; enpresariek beren enplegatuek egindakoaz; behe mailako irakaskuntza zentru baten titularrek adingabeko ikasleek egindako kalteetaz, irakasleen kontrol eta zaintzapean dauden bitartean.

Pertsona hauek ez dute erantzukizunik izango, kaltea gerta ez zedin, aita on baten diligentzia erabili zutela frogatzen badute. Azken bi kasuetan, kaltea ordaintzen duenak, kulparekin kaltea egin zuenari ordaindutakoa erreklama diezaioke.

6.7.- Kontratuak partikularrean

Kode Zibilak zenbait kontratu mota erregulatzen ditu. Hauetaz gain, lege berezietan erregulatutakoak daude.

Salerosketa

Salerosketa kontratuaren bidez, alderdi kontratatzaile batek (saltzaileak) gauza konkretu bat ematera behartzen du bere burua eta beste alderdiak (erosleak) gauza horren truke prezioa dirutan ordaintzera.

Gauza eta prezioa entregatu gabe ere bere burutzen da kontratu hau. Jabegoa transmititzeko, tituluaz gain –kontratua bera- gauza entregatu beharko da. Kontratua ospatu ondoren egiten da gauzaren entregatzea. Honela, ondasun higiezinen salerosketaren kasuan, salerosketaren eskritura publikoa entregatzearen parekoa da, edukitza ematearen berdina da.

Saltzailea, saldutako gauza entregatzera eta saneatzera behartuta dago, hau da, saltzaileak, saldutako gauzaren legezko edukitzaz eta gauzak izan ditzaken ezkutuko bizio eta akatsez erantzungo du.

Erosleak prezioa ordaindu eta gauza jaso beharko du.

Donazioa

Doako kontratu bat da. Donazio bitartez, pertsona batek gauza bat beste pertsona bati dohainik ematen dio, azken honek, onartzen duelarik. Alderdi kontratatzaile bakar batek ematen duenez eta besteak ez, legegileek mesfidantzaz erregulatu dute donazioa, kontratuaren formari dagokionez, baldintza gehiago galdatuz –ad. hitzezko donazioaren kasuan, donazioan emandako gauza momentuan entregatu behar da edo ondasun higiezin baten donazioaren kasuan, eskritura publiko bat egin beharra-. Gainera, donazioa baliorik gabe uzteko zenbait arrazoi daude: gauza dohainik jaso duena esker txarrekoa izatea, kargak ez betetzea….

Gauzen akuratze kontratua

Kontratuaren alderdietako batek, denboraldi baterako eta prezio baten truke, kontratuaren beste alderdiari gauzaren erabilpena ematera behartzen du bere burua. Gauza bat errentan eman dezake bere jabeak eta, jabea izan gabe, gauzarengan erabiltzeko eskubide bat duenak.
Akuratzen dena hiriko finka bat ba da –etxebizitza edo negoziorako lokala- Lege berezi bat aplikatuko zaio eta ez Kode zibila. Baita ere, landa-etxe bat baldin bada. Beraz, Kode Zibila ondasun higigarrien akurapenari soilik aplikatuko zaie.

Obra edo zerbitzuen akurapen kontratua

Kode zibileko 1554. artikuluak dioenez, kontratuaren alderdietako batek, kontratu bidez, bere burua obra bat egitera edo zerbitzu bat ematera behartzen duenean kontratu hori akurapen bezala kontsideratzen du. Bi kontratu hauek desberdinak dira: obraren kasuan emaitz baten obligazioa dago eta bigarrenean zerbitzu bat emateko obligazioa baina emaitz batera iristeko konpromezurik gabe.

Zerbitzuen akurapenari dagokionez, Kode Zibileko arau urriak lanbide liberalek egindako zerbitzuei aplikatzen zaizkie: sendagileak, abokatuak, arkitektuak... Azaldu beharra dago, azken hauek, batzutan, emaitz batera konprometitzen direla, obra akurapen kontratu bat sinatu dutenean –ad. diktamen juridiko bat, eraikuntza baten planoak...- eta beste batzutan, bai akuratzen dituztela beren zerbitzuak –prozesu judizial batean defentsa, irabaziko den ala ez ziurtatu gabe-.

Mandatu kontratua

Mandatu kontratuaren bitartez, pertsona batek, bere burua, beste baten kontura eta enkarguz, zerbitzu bat ematera edo zerbait egitera behartzen du. Enkargua gestio bat egitea denean –erosi, saldu, ondasunak administratu...- mandatu baten aurrean egongo gara. Bi mandatu mota daude: alde batetik, ordezkariak (mandatariak) beste baten izenean eta kontura jarduten duenean eta, bestetik, ordezkari edo mandatariak bere izenean jarduten duenean, kontratatzen duen hirugarrenarekin lotuta bera geldituko delarik.

Mailegu kontratua

Espainiako Kode Zibilak bi mailegu mota erregulatzen ditu: bata, komodato edo erabilpenerako mailegua da eta bestea mailegu soila edo mutuoa deritzona. Mailegu

kontratuaren bidez, alderdi kontratatzaile batek besteari suntsigarria ez den gauza bat uzten dio, erabili eta itzuli dezan (kasu honetan, kontratuari komodato deitzen zaio). Bestela, dirua edo gauza suntsigarri bat uzten dio, espezie eta kalitate berdineko beste horrenbeste itzultzeko baldintzarekin (horrela egindako kontratuari mailegu soila deitzen zaio). Maileguak, interesak sortuko ditu horrela hitzartu badute. Mailegu garrantzitsuenak hipotekarekin bermatutakoak dira, eta hauek Lege Hipotekarioak, banku legeek eta kontsumoari buruzko arauek erregulatzen dituzte.

Komodatoa doakoa izaten da eta horixe da gauzen akurapenetik bereizten dituena.

Gauza higigarrien gaineko gordailu kontratua

Gordailu kontratuaren bitartez, alderdi kontratatzaile batek, bestearen gauza bat jasotzen du zaintzeko eta bueltatzeko obligazioarekin. Gordailua, kontrako pakturik ezean, doako kontratu bat da. Gordailuzainak, gordailuan jaso duen gauza erabiltzen badu, mailegu kontratutzat hartuko da.

Sozietate zibil kontratua

Sozietate zibila kontratuaren bitartez, bi pertsona edo gehiago amankomunean, dirua, ondasunak edo industria ekarpena egitera konprometitzen dira, beraien artean, irabaziak banatzeko asmoarekin. Orokorrean, sozietate zibilak nortasun juridikoa Erregistroan inskribatu gabe lortuko du. Kapitaleko sozietateek, ordea, ez dute nortasun juridikorik lortuko –Sozietate Anonimoa, Erantzukizun mugatuko Sozieatea- Merkatal Erregistroan inskribatzen diren arte.

Fidantza kontratua

Fidantza berme pertsonaleko kontratua da. Fidantzaren bitartez, pertsona batek bere burua beste hirugarren baten ordez zerbait ordaintzera behartzen du, hirugarren honek ordainduko ez balu. Fidatzailea obligazioa betetzera beharturik dago, baina subsidiarioki, hau da, zordun nagusiak bere obligazioa betetzen ez badu. Kasu horretan, obligatuta dago baina ez lehenago.